



## Hemen da uda!

**Uda heldu da eta udarekin batera UDALEKUAK ere heldu dira! Berbaroren aurtengo eskaintza zabala da. Dagoeneko prest izango dituzte motxilak gure gazteek.**

**U**daleku itxiak zein irekiak, bietatik izango dugu aurturaren ere. Udaleku itxietan ume eta gazteek gaua ere kanpoan pasatzen dute eta aurturaren Deustuko Berbaizu elkartereko Txantxiku gazte taldearekin elkarlanean antolatuta ditugu.

**Ibiltaria:** Iazko esperientzia oinarritzat hartuz, gazteek ahalgin handixeagoa egin beharko dute aurturaren ibilbidea ez baita iazkoa bezain leuna izango. 13 eta 17 urte bitarteko 40 gazte Bidarrai eta Izaba arteko bidea egingo dute uztailearen 2tik 16ra bitartean.

**Finkoa:** Aurturaren askoz ume gehiagok eman dute izena eta banaka batzuk kanpoan geratu dira. Ea datorren urtean plaza gehiago eskaintzeko aukerarik daukagun! 9 eta 13 urte arteko 65 umek hamar bat egun pasatuko dituzte Mendigorriako aterpetxean. Horietatik 41 Durangarrak dira eta gaitontzekoak Deustukoak. Uda euskeraz gozatzeko, lagun berriak

egiteko... aukera paregabea izango dute bertan.

Eskerrik asko gurekin batera udaleku hauek antolatzen eta kudeatzen laguntzen ari diren begirale boluntario guztiei! Zuek gabe ezinezkoa izango litzateke hau guztia egitea!

Bestalde, Uda Topera 2006 programa kudeatzeko lehia-keta irabazi dugu aurturaren ere eta beraz, ekainaren 26tik uztailearen 21era bitartean Durangon goizetan egiten den kanpamentua kudeatuko dugu. Bertan, 300 ume baino gehiagok hartuko du parte. Berbaroren lana 35 bat begirale koordinatu eta ume hauei guztiei aisialdia euskeraz gozatzeko aukera ematea da!

Amaitzeko, aipatu, aurturaren lehenengo aldira Kurutzia ikastolako udako egonaldiak ere kudeatuko ditugula. Uztailean zehar 20 bat umek goizak primeran pasatuko dituzte ikastolan, ekintza dibertigarritz betetako goizak antolatu baititugu!

# Ikastaroak 2006

**G**aztelera jasotzera ohituta gauden ikastaroak euskeraz eskaintzea da urtero egiten den ekintza honen helburu nagusia. Ekainean “elikagaien manipulazaiare txartela” ateratzeko ikastaroa egin berri dugu. Lehenengo taldea konturatu orduko bete zenez, bigarren talde bat ere osatu genuen, tabernari, begirale, jantokietako langile eta abarrek osatuta. Irailaren bukaerarako defentsa pertsonalerako ikastaro laburra antolatzen ari gara, beraz, interesa duzuenok dagoeneko izena emateko deitu dezakezue. Bukatzeko, elikadurari buruzko beste ikastaroa antolatzeko asmoa ere badaukagu udazkenerako. Beraz, adi egon, informazioa bidaliko dizuegu eta!



Elikagaien manipulazaiare txartela ateratzeko ikastaroa

## “LiteraturArtean” I. Marrazki Lehiaketa

Udazken honetarako lehiaketa berria prestatu dugu:  
**LiteraturArtean I. marrazki lehiaketa.**

Helburua literatura eta artea uztartzea da. Berbarok Haur Literatur Aretoaren inguruan urtero argitaratzen duen irakur gidaren azala egin beharko dute parte hartzaileek. Lehiaketa 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. Marrazki sariduna argitaratutako irakur gidaren (4000 ale) azala izango da. Gainontzeko baldintzak ezagutzeko, sartu [www.berbaro.com](http://www.berbaro.com) -era.



# Ari gara?

**H**amazazpi urte bete ditu Berbarok. Atze-hera begira jarri eta joandako sasoiare beti hobea izan dela pentsatzeko joera izaten dugu beti. Horrela ote da benetan? Urteok igaro ostean ukazina da zelanbaiteko krisiare bizi dugula eta ez da kasualitatea euskera elkarteok (izena bera egokia ote?) biltzen gaituen Topagunea bera ere egindako ibilbidearen gaineko iritzia bartzan aritzea. Azkeneko lauzpabost urteotan bider jo dugu bazkideengana eta mintegiatarako ondorioak antzekoak izan dira: herri mailan presentzia galdu dugu, bazkietza berririk apenas lortzen dugun, gazteengana heltzea ikaragarri kostatzen zaigu, inmigrazioaren gaiari heldu behar zaio, gatazka politikoaren aurrean Berbaroren jarrera zein da?...

Tontoen kontsolamendurik atsegin ez badut ere, badakit gainerako euskera elkarteak (eta baita bestelako hainbat elkarte ere) antzeko kezketan dabiltzala murgildurik. Erantzun beharreko galdera asko eta baliabideak, gutxi gora behera, orain hamar urtekoak. Horretan ari gara.

Baina ez horretan bakarrik. Durangoko udako Uda Topera kanpamentuak (350 umerentzako aisialdia euskeraz) Berbarok antolatzen ditu joandako 8 urteotan, Haur Literatura Aretoak (Berbaroren lehenengo proiektua) 16 urte bete ditu, 2000 eskola-ume igarotzen dira urtero bertatik eta galdetu datozen idazleei non aurkitzen duten halakorik. Udaleku propioak berreskuratzea erabaki zen orain hiru urte eta aurrean bi antolatu dira eta plazak bete-bete egin dira. Udaleko Euskera Zerbitzuaren kudeaketan parte hartzen dugu. Zazpi urtetako lanaren ondoren Plateruena Kafe Antzokia errealtatea da, Anboto aldizkaria hor dago (inoizko ondoen nire ustetan) eta orain, Lurreko Telebista Digitalaren legearen ondoren, Anboto telebistaren erronka dugu aurrez aurre.

Hutsune handiak ditugu (egiten duguna saltzerako orduan asko) baina ari gara, horixe ari garena. Gurekin ari zaitez nahi genuke galdera zaharrei erantzun berriak ematen saiatzeko.

*Unai Iturriaga*

# Berbarok jarraituko du Udaleko Euskera Zerbitzua dinamizatzen

Durangoako Udaleko Euskera Zerbitzuan dinamizazio lanak egiten jarraituko du Berbarok, EBPNren Plan Estrategikoa garatzeko lehiaketa publikoa irabazi eta gero.

## Euskera Zerbitzua

8 urte eman ditu Berbarok Elkarteak Durangoako Euskera Zerbitzuan dinamizazio lanak egiten. Eman ditu diogu, aurtengo apirilaren 30ean amaitu zelako Udalarekin genuen kontratua. Balantzea eginda dauka Berbarok eta, oro har, esan daiteke positiboa izan dela. Den-dena lerro-tara ekartzeak, ostera, luze joko luke, baina esan beharra dago euskerak eta euskaldunok duela 8 urte baino presentzia eta aukera gehiago dugula gaur egun Durangon, jakin badakigun arren oraindik badagoela zer hobetu, badakigun arren ez gaudela eroso... Jakin badakigun arren euskaldunok euskera hutsean bizitzeko aukerarik ez dugula... Badakigun arren Administrazioak ez duela behar besteko baliabide eta erraztasunik ipintzen euskeraren aurrerabidean...

Berbaroren helburuetako bat hasieratik izan da Udala gune-eragilea izatea euskeraren normalizazioan. Horretan dihardugu eta horri ekingo diogu eten barik: erabile-  
ran eragiten, esparruak zabaldu eta lantzen, ume eta gazteak motibatu eta aukerak ematen euskeraz bizi daitezen, euskaldunak ez direnei gonbidapena egiten euskerara hurre-ratu daitezen, euskal kultura bultzatzen, Administrazioa-  
rekin elkarlanean...

Esan dugun lez, Berbarok irabazi du 2005-2008 epe-aldirako Euskararen Plan Estrategikoa garatzeko Udalak deitu zuen lehiaketa publikoa. Lan egiteko markoa, beraz, horixe izango da. Ekintza lehentasunezkoak, interesgarriak, egingarriak eta eragingarriak aurkeztu ditu Berbarok hurrengo hiru urteetan egiteko eta ondorengoetan ere bai, jakina.

## Plan Estrategikoa

Administrazioak arlo eta maila guztietan Plan Estrategi-koak egiten dihardu: Aukera Berdintasuna, Inmigrazioa, Foru Aldundiak, garapen jasagarria, Eusko Jaurlaritza, Kultura, Mankomunitateak, Euskera... Ederto. Baina planifikazioak eta estrategiak direla eta pare bat kontu:

**Bat:** Planifikatzea derrigorra delakoan gaude, baina ez azalean Urteko Plana edota Plan Estrategikoa idatzita dagoen alantze txukun baturiko orri piloan mahai gainean denon bistara izateko. Bitarteko eta baliabideak ipini behar dira



Piedad Dorado langile berria

txosten apainaren edukiak -ekintzak - gauzatzeko.

**Bi:** Nork egin behar du plana? Nork egin behar du Euskeraren Plan Estrategikoa? Ez dugu duda izpirik, herriko eragileen proposamenak batu eta horren arabera egin behar-ko litzateke. Beraz, Udalak bideratu egin beharko luke bate-tik, durangarren partehartzea eta, bestetik, egindako plana gauzatzeko. Horrela ez bada, zaila izango da Udaletik dato-  
rren edozein plan durangarrek aintzakotzat hartzea.

Zer esanik ez dago, egungo beharizanak duela zor-tzi urte baino handiagoak direla, beste maila bateko-ak, akaso; eta bistakoa da Udaleko Euskera Sailak egin duen aurrerapena.

Hala ere, **hilabete bi inguru** Udaleko Euskera Zerbitzua **motelago** ibili da langile bakarrak jardun due-lako. Motelago diogu kalean Udalaren ezina igarri dela-ko, ikusi dugulako.

Tarte horretan, Berbarok zerbitzua ematen jarraitu du laguntza eske hurreratu zaion herritar, elkarte edo mer-katari orori, euskararen normalkuntza helburu badu-gu, etengabeko lana eta aholkularitza eskaintzea behar-beharrezko ikusten dugu-eta.


## Argitalpen berriak

### BIZKAIKO BERTSOGINTZA XX.MENDEA.

Bizkaiko Bertsozale  
Elkartean argitaratu-  
ta

#### Lan taldea:

Lan taldea: X. Amuriza, I. Elortza, U.Itu-  
rriaga, Urtzi Urrutikoetxea, Arantza Plaza.



Bizkaiko Bertsozale XX.mendea liburuak lau atal ditu. Lehenengoak, 1958an hasi eta 1992ra arteko Bizkaiko Txapelketak ditu oinarri. Bertsoak ez ezik, txapelketaren inguruko kontakizunak ere batzen ditu. Bigarren zatian XX. mendeko bertsolari askoren biografia eta bakoitzaren bertso batzuk agertzen dira. Hirugarren atalak, sortutako Bertso Eskola guztien gaineko xehetasunak biltzen ditu. Azken atala, berriz, elkarriketek osatzen dute: gerra aurreko pertsonailetatik hasi, bertso-eskolen mugimenduko testigantzarekin jarraitu, eta Bizkaiko bertsozale inportanteak izan diren izenekin amaitu arte. Azken atal honetan, Jon Azpiritzaga, Jon Enbeita, Jon Lopategi, Abel Muniategi, Jon Mugartegi, Gregorio Larrañaga Mañukorta, eta Amuriza bera batzen ditu. Lana osatzeko Alfoso Irigoienek laguntza izan dute.

Prezioa: 30 €

## Ikimilikili... klik euskaraz

Kaixo internauta, udako oporretan zaudeteno i aaaaaas-  
ko gozatu; hartzeko zaudeteno i atzerako kontaketa bai-  
no ez delako geratzen, animuak bidaltzen dizkizuet.  
Gutxi batzuk dagoeneko amaituta izango dituzue oporrak  
zuek animatzeko zer esanik ez dut, hasperen egin eta aurrera.


Badaude beste batzuk oporrak zer diren ere ez dakitenak, eta udara ikas-  
ten eta jakin-mina asetzen igarotzen dutenak. Horiei dago zuzenduta gure  
*ikimilikiliklik* atala.

Udako ikastaroen gainean informazioa nahi izanez gero, hona hemen aukera ederra:

[www.ueu.org](http://www.ueu.org) web guneko eskuineko zutabean udako ikastaroak klikatu eta 2006ko udako ikastaroen eskaintza ikusiko duzue.

Gutxi baderitzozue, [www.ehu.es](http://www.ehu.es) helbidean beste hainbeste ikastaroen berri izango duzue.

Eta zure asmoa bada euskara ikaste-  
ko aukerak ezagutzea, euskarazko softwarea deskargatzea eta azkeneko berriak zeintzuk diren jakitea [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net)-en nahi beste informazioa lortu dezakezu. Ondo pasa oporrak bakoitzak ahal eta nahi duen moduan, jakina.



## Irudiketa...



Biltegiaren garbiketa

Ekaina hasieran biltegia garbitzea erabaki genuen. Trastu guztiak kalera atera eta biltegia zilarra bezain disdirtatu utzi genuen. Horretarako goiz osoa eta arratsaldearen zati handi bat lanean pasatu genuen boluntario talde baten laguntzaz. Eskerrik asko azken hauei. Eta hemendik aurrera ia biltegia garbi mantentzen dugun!

## IBILALDIA 06 ELORRION

Batzen gaituenak, batu gintuen oraingoan ere. Hiru tailer desberdin antolatu zituen Berbarok, makillaje tailerra bat eta marigorringoak eta hegalariak egitekoak beste biak. Ume mordo bat zen. Hori ba, esandakoa, batzen gaituena!

